

ELKARRIZKETA
MERTXE URTEAGA
(Lazkao 1960)
ARKEÓLOGOA



MARTXOAK 8

**OIASO MUSEOA
EMAKUMEAREN
NAZIOARTEKO
EGUNAREKIN**

IBILBIDEA

1982an Geografia eta Historian lizentziatu zen Valladolideko Unibertsitatean, Erdi Aroko Historia eta Historiaurre-Arkeologia espezialitateetan Unibertsitate horretan bertan doktoratu zen 1987an, Arqueología de la Producción del Hierro en Guipúzcoa izeneko tesiarekin. Bere ikasketak Euskal Herriko Aro Iluna deiturikoan zentratu zituen eta burdina ekoizpenean ikertu zuen.

1983an, Txomin Ugalde espeleologoarekin lankidetzan, Arditurriko (Oiartzun, Gipuzkoa) Meatze Esparruko lehen 9 erromatar galeriak ezagutarazi zituen. Urte horietan, Jaime Rodríguez Salisekin batera, Aranzadi Zientzia Elkarteko Arkeologia Saila aktibatu zuen.

Arkeologiari eskainitako lehen enpresa-elkartearen sorreran parte hartu zuen: Arkeolan. Eta 1992an, Irunen, iberiar penintsulako lehen erromatar portua aurkitu zuten. Arkeolan Fundazioko zuzendari zela, 2001ean Bidasoako Zinema Arkeologikoaren Nazioarteko Jaialdia sortu zuen, FICAB. Jaialdi horren zuzendaria izan da, eta harekin kolaboratzen jarraitzen du.

2006an Irungo Erromatar Museoa sortu zuen, eta bertako zuzendaria izan zen 2016ra arte.

Gainera, Ponpeiako La Fortuna Augusta tenplua induskatu zuen nazioarteko taldean parte hartu zuen (2010-2015).

2016an, etapa profesional berri bati ekin zion, Gipuzkoako Foru Aldundiko arkeologia-teknikari gisa. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historiko-artistikoaren Zerbitzuan lan egiten du.



IRUNGO OIASSO
MUSEOAREN
SORTZAILEA ETA
LEHEN ZUZENDARIA.

FICAB, BIDASOKO
NAZIOARTEKO
ZINEMALDI
ARKEOLOGIKOA
SORTU ZUEN.

IBILBIDE ZABALA ETA
EZAGUNA DU IKERKETA
ARKEOLOGIKOETAN,
ETA GURE LURRALDEAN
ERROMATARREN
IRAGANA EZAGUTZEKO
EGINDAKO EKARPENAK
NABARMENTZEN DIRA.



MERTXE URTEAGARI ELKARRIZKETA

■ Nolatan ikasi zenuen Arkeologia? Zer oroitzapen dituzu unibertsitateko urteez?
Zenbat emakumek ikasten zenuten espezialitate hori?

Egia esan, Arkeologiak ni harrapatu ninduen, karrerako bigarren urtean, 1978an. Ikaskide batzuek praktikak egin nahi zituzten Arkeologiako tailerrean, eta bila etorri zitzaizkidan, nota igotzeko. Esan zidatenez, nahikoa zuten astebete egotea, baina astebete igaro, haiek alde egin, eta ni gelditu egin nintzen.

Ikasturte osoa Sorian Brontze Aroko asentamendu baten indusketa lanetan agertu zen zeramika sailkatzen laguntzen eman nuen, eta saritzat hurrengo kanpainan parte hartzen utzi zidaten. Udazkenean izan zen, eta tokia zoragarria zen, jendeztatu gabeko paisaia baten erdian baitzegoen, baso, zelai eta ibai artean, Numantziatik oso gertu. Berehala, konturatu nintzen aparteko lekuak ezagutzeko eta jende desberdin eta interesgarriarekin bizitzeko aukera paregabea izango zela. Almarzan (Soriana) eman nituen aste haiek Gaztelan, Euskal Herrian, Ingalaterran, Galesen, Italian, Grezian, Europako beste herrialde batzuetan, Afrikako iparraldean, Latinoamerikan barrena egindako ehunka irteeraren aurrekaria izan ziren. Nire jakin-min handiak lanari zentzua ematen lagundu du, eta euskal nortasunaren inguruko galderekin zerikusia duten bideetatik eramaten.

Nire lehenengo indusketa kanpainan, bi emakume bakarrik geunden, eta zuzendariak (gizona) hamaiketakoa beti prest izatea enkargatu zigun. Uste dut horrek argi uzten duela zein zen gure lekua lantaldean.

■ Mertxe, Gipuzkoaren historia berridazteko arduradunetako bat izan zara. Erromatarrek gure lurretara iritsi ez ziren topikoa zeharo aldatu zenuen. Zer suposatu zuen teoria hori hausteak?

Erromatarren kontua beste bide batzuk urratu ondoren sortu zen: aurrez, Arkeologia historiaurreaz eta mundu klasikoaz harago aplikatzea lortu nuen; hirigune historikoak espazio arkeologiko gisa babestuak izateko borrokatu; gure lanak amateur eta irakaskuntza lanen udako osagarri izateari utz ziezaion saiatu, profesionala eta ordainpekoa izan zedin. Beste kontu bat izan zen ikustea ez ginela gai egiten genituen aurkikuntzak jendarteratzeko, gizarteak ez baitzituen haiek behar bezala irakurtzeko beharrezkoak ziren tresnak.

irakurtzeko beharrezkoak ziren tresnak. Adibidez, sigillata zelakoa erromatarren munduko mahai gaineko ohiko zeramika zen –sigillata hitzak zigilatu hitza esan nahi du, fabrikatzaileek beren marka komertzial edo zigilua jartzen baitzuten piezetan–, baina jende gehienarentzat oso itxura modernoko ontzi gorrien puskak baino ez ziren eta, gainera, ez zetozen bat eskolan erakutsi ziotenarekin; alegia, euskal hizkuntzak bizirik erromatarrek lurraldea konkistatu ez zutelako iraun zuen ikaskizunarekin. Horrexegatik, tresnak ingurukoek ulertzeko modukoak izatea eta ingurukoek Arkeologiaren esparruan erabiltzen ditugun kodeak interpretatu ahal izatea dut helburu aspaldidanik.

■ Meatzaritzan espezializatu, eta zenbait galeria erromatar aurkitu zenituen. Arkeolan Fundazioaren barruan, berriz, Oiassoko portu erromatarra aurkitu zenuen, Oiassoko termen aurkikuntzan parte hartu duzu, Ponpeian ikerketa lanetan aritu zara... Zer aurkikuntzak markatu zaitu gehien?

Barruan hondarrak zituzten Brontze Aroko ontzi erritualak izan ditut esku artean; duela milaka urte bizitokitarako erabili ziren txabolen behea lurpetik atera dut; ezkutuan zeuden Erdi Aroko gazteluen dorreak aurkitu; beste garai batzuetako meatzariek galeria ilunetan utzitako hondarrak jaso, hala nola kanpaiak egiteko labeak, burdina ekoizteko milaka lanen hondakinen zepategiak, zolagain landuak, hilarriak eta estelak. Edonola ere, gehien hunkitzen nauena aparteko zirkunstantzietan oraindik egoera ezin hobean dauden objektuak aurkitzea da: artilezko ehunak, hosto berdeak, ihia, haziak, melokotoi hezurak, ezkurak, zurezko zimenduak... Ildo horretatik, Irungo portu erromatarreko lokatzetan lan egitea esperientzia paregabea izan da, lokatzak piezak kontserbatzen lagundu baitu; beste zirkunstantzia batzuetan, alferrik galduko ziratekeen.

■ Ikerketa lanaz, argitalpenez eta irakaskuntzaz gain, zure lanaren barruan nabarmendu beharreko helburu bat dibulgazioa eta jakintzaren eta gure historiaren jendarteratzea da. Zergatik iruditzen zaizu garrantzitsua dibulgazio lana?

Kanadarrek formulatutako teoria batekin bat nator. Haren arabera, kate trofikoa itsasoko planktonean hasten den eta gizakion ahotan bukatzen den bezalaxe, bada ondarearen kate bat, hiru kate mailaz osatutakoa: lehenengoa jakiteko ikerketa da; bigarrena, baloratzeko dibulgazioa; eta hirugarrena, kontserbatzeko birjabekuntza.

.Alegia, ikertu eta ondare berriak deskubritzen ditugu, baina, behar bezala balora daitezten, ezagutzera eman eta dibulgatu egin behar dira; ezagutzen ez baditugu, ezin ditugu baloratu. Horrexegatik ahalegintzen gara horretan, Arditurriko meategiak bisitatzeko egokituz, Agorregiko burdinola martxan jarritz, gatza erauzteko Leintz Gatzagako makineria lehengoratzuz, Azkoitiko ondare lekua eta Oiasso Museoa sustatuz, Dies Oiassonis eta Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa antolatuz... Dudarik gabe, Zinemaldia da gehien asebetetzen nauten ekimenetako bat: nire ustez, tresna ezin hobea da ondare arkeologikoa eta arkeologok egiten dugun lana ezagutarazteko.

■ Aipatu dituzun lan guztien artean Irunen erromatar museoa sortzea aipagarria da benetan, eta Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa martxan jartzea zure ekarpen nagusietako bat da, Iruni egindakoa ez ezik, baita arkeologiari eta zinemari egindakoa ere. Nolatan bururatu zitzaizun eta nola jarri ahal izan zenuen martxan?

Nolatan bururatu zitzaidan?

Burdinaren historia ezagutzeko ekarpen arkeologikoei buruzko kongresu batean – nire gairik gogokoenetako beste bat da hori–, afalondoan, ikerlari suitzar batek Boli Kostako dogonen artean filmatutako dokumental bat aurkeztu zigun, duela zenbait hamarkadatar arte burdina nola egiten zuten kontatzen zuena: olagizon zaharrek beren tradizioa kameran aurrean erakutsi zuten, eta emaitza, oso irudi erakargarriez gain, kontakizun liluragarri bat zen. Garai hartan, Irungo Udalak hitzaldi ziklo baten bidez sortzen ari zen museoa ezagutzera emateko plan bat eskatua zion Arkeolan Fundazioari, eta pentsatu nuen dogonei buruzko dokumentala hitzaldi baten ordezkoa izan zitekeela. Zorionez, zenbait topaketa zientifikori esker, estilo bereko dokumentalak bildu ahal izan nituen: galiarren erauzketari buruzko bat, datazio metodoei buruzko bat, etab. Konturatu nintzenerako, jaialdi arkeologiko bat nuen esku artean. Begoña del Tesok formatua taxutzen lagundu zidan, eta lehenengo edizioa 2001ean izan zen; hogeit hamar edizio baino gehiago dagoeneko.

■ Jaime Rodríguez Salís indusketa lan ugariaren sustatzailea, lankidea eta, batez ere, lagun mina izan zen. Baduzu haren oroitzapenen bat kontatzerik?

Jaime Rodríguez Salís oso pertsona garrantzitsua izan da nire bizitzan; ia 40 urte izan dut ondoan: elkar ezagutu genuenetik, 1983. urtearen hasieratik, hil zen arte, 2021eko otsailera arte. Jaimerekin, ardoa edaten ikasi nuen, ezagutu nuen arte ez baitzitzaidan gustatzen, eta, gainera, egoera askotan moldatzeko ezin konta ahala gauza ikasi nituen. Arkeologo igandezaleztat zuen bere burua, baina hain intuizio aparta zuen Oiasso aurkitu baitzuen, eta are upategi bat ezerezetik muntatu ere, orain erreferente dena Remelluri ardoei esker.

■ Zabalkunderako, Dies Oiassonis, Aisialdi Historikoaren Jaialdia jarri zenuen martxan, eta irundarrak konbentzitu zenituen erromatarrez jantzeko eta jai herrikoi honetan parte hartzeko. Nola gogoratzen dituzu hasiera haiek?

Eszena gogoangarri asko datozkit burura, dozenaka urte eman baititut jarduera ezohiko batean leku ezohikoetan eta jende ezohikoarekin, eta asko Dies Oiassonis jaialdiarekin lotuta daude. Adibidez, behin, jaialdirako musika tresna bat Marokotik kontrabandoan pasatu nuen: saltzaileak gomendatu zidan, atalka eramanez gero inork ez baitzuen ulertuko zer zen eta aduanan disgustua eman baitziezadaketen, eta, beraz, piezak berokiaren azpian sartu nituen, bizkarraren eta motxilaren artean. Beste urte batean, Satyricon-eko Trimalzionen oturuntza berregin genuen, David de Jorgek proposatuta, baina, gero, hark bakarrik utzi ninduen erronkari aurre egiteko: egun hartan, goiz iritsi nintzen Museoaren egoitzara, atzeko orube batean, orain termen estalkia eraikiko den lekuan, gau osoa 250 kilogramotik gorako txerri bat erretzen baitzeramaten, eta Beraun osoan haragi usain zoragarria aditzen zen, baina, behin txerria puntuan zegoela, bazkalorduan, zurezko plantxa bat erabili zuten ateetaraino eramateko, eta pisuak plantxa puskarazi, eta txerria lurrean zabaldu zen; gainera, hiru txerritxok osatzen zuten aurkezpena, eta jabeak, erromatar jantzitako Lazkaomendiko baserritar batek, ekinaren ekinez, antzezpenak behar zituen txilinak jartzea lortu zuen, baina kalean gora ihes egin zuten Nafarroa hiribiderantz... Hurrengo urteetan, jaialdiaren edizio berria programatzen hasterakoan, bazen beti ni zirikatzeke beste txerri bat erretzea proposatzen zuen bihurriren bat.

■ Urte hauetan guztietan, seguru asko, emakume izateak ez zizun erraztuko zailtasunei aurre egitea. Diskriminaziorik sentitu duzu lanean?

1982an zuzendu nuen nire lehenengo indusketa kanpaina; alegia, badut nolabaiteko perspektiba azken 40 urteetako bilakaeraren inguruan. Bada, aurrerapen handiak izan dira parekotasun eta berdintasunera bidean. Lantalde berriak ikusten ditut, askoz ere trebatu eta gaituagoak, eta, hain zuzen ere, abangoardiako talde horietan daude emakumeak egoerarik onenean. Horregatik, ordezkioak iristeko eta niri egokitu zaizkidan eskemak atzean gelditzeko zain nago, eta, ekinez, erakusteko ez dugula zertan bigarren mailakotzat hartuak izan emakume izate hutsagatik.

